

Prensaurrekoa: 2017/04/07 11:00etan ADEGIIn

Elkarretaratzea: 2017/04/07 12:00etan ADEGIIn

## **1.- Merkataritzaren Negoziazio Kolektiboa Gipuzkoan. Begiratu bat atzera.**

Adegiren orain arteko ohitura izan da Metalgintzaren Hitzarmena negoziatzea, eta negoziazio hori behin bukatu ondoren, proposamenak egitea Merkataritzarako, Metalgintzaren Hitzarmenarekiko murrizketa nabarmenak egin eta gero.

Hori horrela, ekonomiaren hazkunde garaian, kontsumoa eta enpresa-etekinak goraka zihozten bitartean, merkataritzako soldatak lan-merkatuaren azken postuetan zeuden. Hori ikusita, ELAk aurrera-jauzi bat proposatu zuen, langile horien soldatak orduko egoera oparora egokitzearen.

## **2.- Negoziazio kolektiboaren erreforma eta 2013/07/07.**

Soldatak behar bezala duintzeko negoziazioetan murgildurik geundela, bete-betean harrapatu gintuzten krisiak eta lan-erreformek. Hori dela-eta, patronalak bere proposamenak erretiratu zituen mahai gainetik, eta sindikatuok gure eskakizunak egokitu egin behar izan genituen. Orduetik aurrera ELAren ahalegin guztiak hitzarmenak lan-erreformatik blindatzeko izan dira. Eta horren haritik jarraitu dugu azken urte hauetan.

Merkataritza-hitzarmenak berritzeko negoziazioetan 2 urte luze ibili ginen patronalarekin adostasunik lortu ezinik, eta hitzarmenen iraugitze-data etortzear zegoen: 2013/07/07. Orduan patronalak indarrez heldu zion lan-erreformari, eta baita aurrera-eragin mugagabearen amaierari esker hitzarmen atzerakoia aplikatzeko aukerari ere. Hortaz, ELAk negoziazio kolektiboa berriro abiarazteko egiten zituen saiakerak, betiko patronalek geldiarazten zituzten, lan-erreformaren aldekoak baitziren (alde guztietatik: malgutasuna, inaplikazioa...)

2013/07/07 eguna ez dute aise ahaztuko sektoreko ELA-ordezkariek. LAB eta CCOO sindikatuek Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zuten. Merkataritza-sektoreen artetik Merkataritza Orokorrekoa bakanetakoa da non ELAk ez duen erabateko gehiengoa. Guk ez genuen hitzarmen hura sinatu, besteak beste, zekarren arriskuagatik, eta ez genbiltzan oso oker; izan ere, merkataritzaren gainerako hitzarmenen aurrera-eraginaren amaierarekin batera Merkataritza Orokorrekoa bazter-hitzarmena izatetik aplikatu beharreko hitzarmena izatera aldatu zen. Hori ez zen izango garrantzizkoena, ez bazen askoz baldintza txarragoak dituelako, Merkataritzaren gainerako azpisektoreetakoak baino dezente apalagoak. Batzuetan estatuko zenbait hitzarmenetan baino are soldata txikiagoak dituzte, esate baterako, drogerietan eta lurrin-dendetan.

Konparazio baterako:

Hitzarmena	Indarraldia	Dendariaren urteko soldata
Gipuzkoako Larrukien Merkataritza	2006-2009	17.705,70 €
Gipuzkoako Ehunkien Merkataritza	2006-2009	18.676,35 €
Gipuzkoako Metal Merkataritza	2005-2008	18.534,30 €
Gipuzkoako Merkataritza Orokorra	2013-2014	12.155,10 €
Estatu Drogeria eta Lurrin-dendak	2012-2016	13.002,54 €

Gipuzkoan indarrean zeuden gainerako hitzarmenen aldean, Merkataritza Orokorreko Hitzarmenean hain soldata baxuak izateko arrazoia da hitzarmen hori bazter-hitzarmena zela; baina patronalak, lan-erreformaz baliaturik, prekarietaterik gordinena hedatu du merkataritzan.

### **3.- “Jaietan Denok Jai” arazoa eta patronal berriak agertzea**

Merkataritzaren hitzarmenak berreskuratzeko ahaleginetan betiko patronalekin bi urteko desadostasunak izan ondoren, Dendartean patronalak negoziazioan parte hartzea erabaki zuen. Orduko testuinguruan igande eta jai-egunetan “0” irekieraren aldeko mobilizazioak puri-purian zeuden, eta aliantza moduko bat bilbatu zen dendari txikien, kontsumitzaile-elkarteen eta sindikatuen artean. Igande eta jai-egunetan “0” irekierak hitzarmenean erregulatzearen trukean Dendartean prest zegoen lan-baldintzak hobetzeko, eta baita lan-erreformaren aurreko negoziazio-arauak aplikatzeko ere: aurrera-eragin mugagabea eta aplikazioaren bermea.

Orduan betiko patronalek batasuna estutu zuten, eta Dendartean-i negoziazio-mahaian sartzeko baldintza gaindiezinak ezarri zizkioten. Baina dendari txikiak soldata-igoerak jasateko, eta igande eta jai-egunetako irekierak erregulatzeko moduan badaude, zer esanik ez dago kate handiak ere egin dezaketela. Negoziazioak akordiorik gabe bukatu ziren beste behin, eta patronalen blokeo handi batekin.

Orditik hona ELA hainbat aldiz saiatu da negoziatioari berriz ekiteko, baina alferrik. Sektoreko 4 patronaletatik 3k ez dute batere interesik izan.

2015eko amaiera aldera, ELAk Bizkaiko Ehunkien Merkataritzaren Hitzarmena sinatu zuen. Aurrekoaren aldean aurrerapauso nabariak eman ziren, eta lan-erreforma alde batera utzi zen. Aldi berean, ELAk **EAEko Merkataritzaren Esparru Akordioa** sinatu zuen, zeren bagenekien estatu-mailako merkataritzaren akordio bat sinatzeko asmoa zegoela, negoziatio kolektiboa egituratzeko, eta estatu-esparruaren aldeko lehiakortasun-arauak ezartzeko. Hori zela-eta, guk aurrea hartu genuen eta aipaturiko akordioa sinatu genuen, merkataritzaren hitzarmenen negoziatio kolektiborako.

Handik aurrera ondoz ondoko gertaerak jazo ziren (nabarmenezkoa EAEko Ostalaritzaren Esparru Akordioa), eta azkenean **Lanbide-arteko Esparru Akordioa** sinatu zen. CONFEBASKekin sinatu zen, eta han probintziako sektore-hitzarmenei eman zitzaizen lehentasuna, estatu-hitzarmenen aurretik. Aurrerapauso nabaria izan zen, batez ere Zapateroren lehen erreformaz geroztik jasaten ari garen estatalizazioa kontuan hartuz. Erreforma hartan estatu-hitzarmenei ahalak eman zitzaizkien, gure negoziatio kolektiboa mugatzeko. Dena dela, Merkataritzaren negoziatioa ez estatalizatzeko oztoporik handiena han zegoen: negoziatioaren blokeoa, eta horren ondorioz ez egotea hitzarmenik indarrean.

#### **4.- Oraingo egoera**

Abenduaren amaieratik saiatu gara negoziazioak irekitzen hainbat hitzarmenetan (ehunkien, altzarien, larrukien eta metalaren merkataritzan). Zenbait bilera egin dugu, baina 3 hilabete ondoren, oraindik ez ditugu negoziazio-mahaiak eratu, eta ez gara hasi hitzarmen horien edukiez hitz egiten.

Aldi honetan, negoziazio-mahaietan, betiko patronalez gain, Dendarlean eta Garen patronalak ere batu dira. Egindako bilera guztietan arazo berarekin egiten dugu topo: betiko patronalek ez dituzte onartzen patronal berriak, eta ordezkariak egiaztatzea eskatzen diete. Orain arte, negoziazio-mahaiak eratzean, ez zaie eskatu patronalei ordezkariak egiaztatu beharrik, sindikatuek negoziatzeko asmoa zuten patronal guztiak onartzen baitzituzten. Hala ere, betiko patronalentzat ez da jadanik nahikoa elkarren onarpena.

ELAk behin baino gehiagotan adierazi duenez, arazo hori errotik konpondurik egongo litzateke, baldin eta patronalen ordezkariak frogatzeko sistema bat, publikoa, objektiboa, gardena eta egiaztagarria balego, sindikatuen kasuan dagoen bezalaxe. Tamalez, ez dago horrelako sistemarik, eta horretaz baliatzen dira negoziazio kolektiboa berriz ere blokeatzeko. Dena dela, halako sistemarik ez dagoen bitartean, ELAk eskatzen die patronalei zeinek bere erantzukizuna betetzeko, eta hitzarmenen negoziazioan aurrera egiteko behar diren akordioak lortzeko. Baina gertaerak ikusita, beldur gara ez ote den txarrena gertatuko. Egoera eroso da negoziatu nahi ez duenarentzat. Lan-erreforma aldeko dute, eta baita Merkataritza Orokorraren Hitzarmena aplikatzeko aukera ere, aipatu ditugun sektoreetan. Lanordu gehiago, askoz diru gutxiagoren truke.

#### **5.- ELAren plana, Merkataritzaren hitzarmenak berreskuratzeko**

Horren aurrean ELAk bide desberdinetatik ekitea erabaki du:

1- Ezein patronali atxikita ez dauden sektoretako enpresa handi batzuekin harremanetan hastea, negoziazioan bitartekari-lana egin dezatela eskatzeko.

2- Patronal bakoitzarekin negoziazio kolektiboko edukiak haztatzea.

Merkataritza txikiko patronalek (Dendarlean) negoziazio-eduki handiagoei eusten badiete, lehenago egin duten bezala, bistakoa izango da blokeoaren benetako zergatia ez dela merkataritzaren egoera. Denda txikiek baldintzak jasotzeko aukera badute, zer esanik ez sektoreko enpresa handiez.

3- Langileak bultzatzea lan-baldintzen alde agertzera. Alde horretatik, mobilizazio-egun batera deituko dugu, maiatzaren igande batean.